



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko uztailaren 3a

2. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-23/CCO-00015. Nafarroako Arartekoaren 2022ko ekitaldiko urteko kontuei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/CCO-00015. Nafarroako Arartekoaren 2022ko ekitaldiko urteko kontuei buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko ekainaren 30ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Arartekoaren 2022ko ekitaldiko urteko kontuei buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Adieraztea Nafarroako Arartekoaren 2022ko ekitaldiko urteko kontuei buruzko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

AURKIBIDEA*Orrialdea*

| | |
|---|----|
| I. SARRERA | 4 |
| II. HELBURUAK ETA IRISMENA | 4 |
| III. IRITZIA..... | 5 |
| III.1 Auditoretza finantzarioko iritzia | 5 |
| III.2 Legedi-betetzeari buruzko iritzia | 5 |
| IV. IRITZIAREN OINARRIA | 5 |
| V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIAK..... | 5 |
| VI. ARARTEKOAREN ERANTZUKIZUNA | 6 |
| VII. KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA | 6 |
| VIII. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA | 7 |
| 1. GEHIGARRIA. ARARTEKOAREN 2022KO URTEALDI-KONTUEN LABURPENA..... | 8 |
| 2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO ARARTEKOA | 13 |
| 3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA..... | 13 |
| 4. GEHIGARRIA. OHARRAK ETA FISKALIZAZIOAREN AURKIKUNTZA GEHIGARRIAK | 14 |

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, berari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2023rako bere jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako Arartekoaren 2022ko ekitaldiko urteroko kontuak fiskalizatu ditu.

Landa-lana 2023ko maiatzean egin du lantalde batek, zeina auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatuta egon baita. Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzara ere izan dute.

Jarduketa honen emaitzen berri eman zitzaion Nafarroako Arartekoari, egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan kasua bazen, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan xedatuari jarraituz. Ezarritako epea igarota, ez da alegaziorik aurkeztu.

Arartekoaren langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntza dela eta.

Kanpo kontroleko organoen auditoretzari buruzko araudiaren azken aldaketen ondorioz, txosten honek eta 2021eko ekitaldiari buruz eman genuenak egitura desberdina dute zenbait alderditan.

Txosten honetako datu guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Eman-dako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez datu biribilduen batura.

II. HELBURUAK ETA IRISMENA

Arartekoaren 2022ko ekitaldiko urtealdi-kontuez egin da finantzen eta legezketasun-betetzearen fiskalizazioa, honakoei buruzko iritzia adierazte aldera:

- Ea 2022ko ekitaldiko urtealdi-kontuek, alderdi muntadun guztietan, irudi zehatza erakusten duten Arartekoaren 2022ko abenduaren 31ko ondareaz eta finantza-egoeraz, bai eta data horretan amaitutako urte-ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontuko ere, aplikatzekoa den arau-esparruari jarraiturik eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideei.

- Ea Nafarroako Arartekoaren 2022ko ekitaldiari buruzko urtealdi-kontuetan jasotako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat ote datozen, alderdi muntadun guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

Lanaren norainokoa Arartekoaren 2022ko urtealdi-kontuak dira, zeinek kontabilitateko egoera-orri hauek barne hartzen baitituzte:

- Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria.
- Balantzea.
- Emaitza ekonomikoari eta ondarearen arloko emaitzari buruzko kontua.
- Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria
- Diru-fluxuen egoera-orria.
- Oroitidazkia.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2022ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko beharrezko egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

III. IRITZIA

Nafarroako Kontuen Ganberak, bera arautzen duen 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, Arartekoaren urtealdi-kontuak fiskalizatu ditu, zeinek honakoak barne hartzen baitituzte: 2022ko abenduaren 31ko balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoaren kontua, ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria, diru-fluxuen egoera-orria, aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazkia. Orobat egin du legedi-betetzeari buruzko fiskalizazioa Arartekoaren 2022ko ekitaldiari buruz.

III.1 AUDITORETZA FINANTZARIOKO IRITZIA

Gure iritziz, 2022ko ekitaldiko urtealdi-kontuak, alderdi muntadun guztietan, irudi zehatza erakusten dute Arartekoaren 2022ko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari buruz. Hark ekitaldi horretan izandako ekonomia- eta aurrekontu-emaitzak ere azaltzen dituzte, bat etorritik finantza-informazio publikoaren araudiarekin eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideekin.

III.2 LEGEDI-BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Arartekoaren 2022ko ekitaldiko jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta urtealdi-kontuetan jasotako informazioa bat dagoz, alderdi muntadun guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

IV. IRITZIAREN OINARRIA

Kanpo-kontrolako erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 200 arauan eta legeria betetzearen fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 400 arauan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio-gida praktikoak (GPF-OCEX) erabili ditugu. Arau horien indarrez ditugun erantzukizunak aurrerago deskribatzen dira, gure txosteneko "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean, urtealdi-kontuez eta legeria betetzeari buruzko fiskalizazioaz denaz bezainbatean.

Urtealdi-kontuei eta legeria betetzeari buruzko gure fiskalizazioan aplikatzekoak diren etikaren eta independentzia-babesaren arloko eskakizunekin bat, entitatearekiko independenteak gara, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia ematen dio finantzei eta legezotasuna betetzeari buruzko gure iritziari.

V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIK

Auditoretzako funtsezko auziak dira, gure iritzi profesionalaren arabera, munta handiena izan dutenak 2022ko urtealdi-kontuez egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek urtealdi-kontuen osotasunari buruzko auditoretzaren testuinguruan eta kontu orokorreari buruzko iritzia taxutzerakoan jorratu ditugu, eta ez dugu bereiz azalduko horien gaineko iritzirik.

Erabaki dugu gure fiskalizazioan ez dugula jakinarazi beharreko funtsezko konturik .

VI. ARARTEKOAREN ERANTZUKIZUNA

Arartekoaren erantzukizuna da urtealdi-kontuak egitea, zeinak Nafarroako Parlamentuari igorriko baitizkio kontu-hartzaileak horiek halako moldez prestatu ondoren non Arartekoaren aurrekontu-likidazioaren, ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela emanen baitute, informazio finantzarioari buruz aplikatzekoa den araudia beterik. Bermatu beharko du, halaber, aipatu kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin.

VII. KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Helburutzat dugu arrazoizko ziurtasun bat lortzea, urtealdi-kontuetan, oro har, iruzur edo erroreen ondoriozko akats materialik ez egoteaz, eta kontu horietan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa aplikatu behar den araudiarekin bat etortzeaz, erregulartasunaren fiskalizaziorako gure txostena eman ahal izateko, gure iritzia jasotzen duena.

Arrazoizko ziurtasun hori ziurtasun maila handia da, baina ez du bermatzen kanpo kontroleko organoen araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen dituenik akats materialak edo ez-betetze muntadunak. Akatsak iruzurraren edo erroreen ondorio izan daitezke, edo legea ez betetzearen ondorio, eta akats materialtzat jotzen dira kontuen ganbera honen irizpideak aplikatuta, baldin eta zentzuz aurreikusi ahal bada txostenen erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan eraginen dutela.

Fiskalizazioaren atal gisa, eta kanpo kontroleko organoen araudiarekin bat etorriz, gure iritzia profesionala aplikatzen dugu eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan. Gainera:

- Lege urratzeak eta iruzur edo erroreen ondoriozko akats materialak izateko arriskuak identifikatu eta baloratzen ditugu, auditoretzako prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta auditoretzako ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzari oinarria emateko. Iruzurraren ondoriozko akats material edo ez-betetze bat ez atzemateko arriskua handiagoa da erroreen ondoriozko akats materialaren kasuan baino; izan ere, iruzurra dagoeanean tartean izan daitezke kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, berariazko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.

- Barne-kontrola dela-eta fiskalizaziorako muntazkoa den ezagutza lortzen dugu inguruabarren arabera egoki diren auditoretza-prozedurak taxutze aldera, eta ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzirik emate aldera.

- Ebaluatzen dugu ea aplikaturiko kontabilitate-politikak egoki diren, eta arrazoizkoak ote diren kontabilitate-estimazioak nahiz kudeatze-organismoak emandako informazioa.

- Urtealdi-kontuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta ea urtealdi-kontuek zehatz irudikatzen dituzten transakzioak eta azpian dauden egitateak.

Entitateko gobernu organoarekin harremanetan aritzen gara gai hauen inguruan, besteak beste: planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta haiek egiteko unea, fiskalizazioan aurkitutako gorabehera adierazgarriak, bai eta fiskalizazioan zehar identifikatzen ahal dugun barne-kontrolako edozein akats muntadun ere.

VIII. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Fiskalizatutako ekitaldian, neurriak hartu dira lehenagoko txosten batzuetan jasotako gomendio hauek betetzeko:

Nafarroako Arartekoaren plantilla organikoan hutsik dagoen administrari-lanpostua behin betikoz betetzea, langile kontratudun batek betetzen baitu 2008az gero.

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Begoña Herrera Isasik proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

(Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak 2023ko ekainaren 21ean elektronikoki sinatua)

1. GEHIGARRIA. ARARTEKOAREN 2022KO URTEALDI-KONTUEN LABURPENA**1.1 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

Diru-sarrerak kapituluz kapitulu

| Kapitulua | Hasierako aurreikuspenak | Behin betiko aurreikuspenak | Aitortutako eskubideak | Betetzearen ehuneko | Kobrantzak | Kobrantzen ehuneko |
|--------------------------------------|--------------------------|-----------------------------|------------------------|---------------------|----------------|--------------------|
| 3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak | 20 | 20 | 47 | 234 | 47 | 100 |
| 4. Transferentzia arruntak | 843.460 | 843.460 | 843.460 | 100 | 843.460 | 100 |
| 5. Ondare bidezko diru-sarrerak | 20 | 20 | 0 | 0 | 0 | - |
| 7. Kapital-transferentziak | 30.240 | 30.240 | 30.240 | 100 | 30.240 | 100 |
| 8. Finantza-aktiboak | 40 | 40 | 0 | 0 | 0 | - |
| 9. Finantza-pasiboak | 20 | 20 | 0 | 0 | 0 | - |
| Guztira | 873.800 | 873.800 | 873.747 | 100 | 873.747 | 100 |

Gastuak, kapituluz kapitulu

| Kapitulua | Hasierako kredituak | Behin betiko kredituak | Aitortutako betebeharrak | Betetzearen ehuneko | Ordainketak | Ordainketen ehuneko |
|-------------------------------|---------------------|------------------------|--------------------------|---------------------|----------------|---------------------|
| 1. Langileria gastuak | 602.700 | 643.025 | 643.025 | 100 | 643.025 | 100 |
| 2. Ond. ar. eta zerb. gastuak | 202.000 | 161.675 | 155.388 | 96 | 152.894 | 98 |
| 4. Transferentzia arruntak | 38.800 | 38.800 | 37.905 | 98 | 37.905 | 100 |
| 6. Inbertsio errealak | 30.000 | 30.000 | 29.407 | 98 | 27.848 | 95 |
| 8. Finantza-aktiboak | 200 | 200 | 0 | 0 | 0 | - |
| 9. Finantza-pasiboak | 100 | 100 | 0 | 0 | 0 | - |
| Guztira | 873.800 | 873.800 | 865.725 | 99 | 861.673 | 100 |

1.2 2022KO AURREKONTU-EMAITZA

| Kontzeptuak | 2021 | | | 2022 | | |
|--|------------------------------|--------------------------|--------------------------------|------------------------------|--------------------------|--------------------------------|
| | Aitortutako eskubide garbiak | Aitortutako betebeharrak | Aurrekontu-emaitza, doikuntzak | Aitortutako eskubide garbiak | Aitortutako betebeharrak | Aurrekontu-emaitza, doikuntzak |
| a. Eragiketa arruntak | 829.560 | 737.248 | 92.312 | 843.507 | 836.317 | 7.189 |
| b. Kapital-eragiketak | 20.240 | 19.962 | 278 | 30.240 | 29.407 | 833 |
| c. Merkataritza-eragiketak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 1. Eragiketa ez-finantzarioak, guztira (a+b+c) | 849.800 | 757.210 | 92.590 | 873.747 | 865.725 | 8.022 |
| d. Finantza-aktiboak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| e. Finantza-pasiboak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 2. Finantza-eragiketak, guztira (d+e) | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| I. Ekitaldiko aurrekontu-emaitza (I=1+2) | 849.800 | 757.210 | 92.590 | 873.747 | 865.725 | 8.022 |
| Doikuntzak | | | | | | |
| 3. Gastatutako kredituak, atxiki gabeko diruzaintzako gerakinarekin finantzatuak | | | 0 | | | 0 |
| 4. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze negatiboak | | | 0 | | | 0 |
| 5. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze positiboak | | | 0 | | | 0 |
| II. Doikuntzak, guztira (II=3+4+5) | | | 0 | | | 0 |
| Aurrekontu-emaitza doituia (I+II) | | | 92.590 | | | 8.022 |

1.3 DIRUZAINZAKO GERAKINA 2022KO ABENDUAREN 31N

| Kontzeptua | 2021eko ekitaldia | 2022ko ekitaldia |
|--|-------------------|------------------|
| 1. (+) Funts likidoak | | 62.815 |
| 2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak | | 0 |
| (+ Ekitaldiko aurrekontutik | 0 | 0 |
| (+ Aurrekontu itxietatik | 0 | 0 |
| (+ Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik | 0 | 0 |
| (+ Merkataritzako eragiketetatik | 0 | 0 |
| 3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak | | 62.815 |
| (+ Ekitaldiko aurrekontutik | 2.403 | 4.053 |
| (+ Aurrekontu itxietatik | 0 | 0 |
| (+ Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik | 134.561 | 58.763 |
| (+ Merkataritzako eragiketetatik | 0 | 0 |
| 4. (+) Aplikatzeko dauden partidak | | 0 |
| (+ Eginiko kobrantzak, behin betikoz aplikatzeko daudenak | | 0 |
| (+ Eginiko ordainketak, behin betikoz aplikatzeko daudenak | | 0 |
| I. Diruzaintzako gerakina, guztira (1+2-3+4) | | 0 |
| II. Finantzaketa atxikiaren gaindikina | | 0 |
| III. Kobrantza zalantzarrikoko saldoak | | 0 |
| IV. Atxiki gabeko diruzaintzako gerakina (I-II-III) | | 0 |

1.4 BALANTZEA 2022KO ABENDUAREN 31N

(Emitza aplikatu ondoren)

| Aktiboa | 2021 | 2022 |
|--|----------------|----------------|
| A) Aktibo ez-korrontea | 202.507 | 219.669 |
| I. Ibilgetu ukiezina | 12.138 | 11.444 |
| 3. Aplikazio informatikoak | 12.138 | 11.444 |
| II. Ibilgetu materiala | 190.369 | 208.225 |
| 2. Eraikuntzak | 100.231 | 98.062 |
| 4. Ondare historikoko ondasunak | 41.817 | 42.257 |
| 5. Bestelako ibilgetu materiala | 48.321 | 67.907 |
| Makinak, instalazioak eta tresnak | 3.468 | 6.556 |
| Altzariak eta tresneria | 1.130 | 2.724 |
| Informazioa prozesatzeko ekipamenduak | 14.622 | 28.229 |
| Bestelako ibilgetu materiala | 29.101 | 30.397 |
| B) Aktibo korrontea | 136.964 | 62.815 |
| VII. Dirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk | 136.964 | 62.815 |
| 2. Diruzaintza | 136.964 | 62.815 |
| Kutxa | 420 | 314 |
| Bankuak eta kreditu-erakundeak | 136.544 | 62.501 |
| Aktiboa, guztira | 339.471 | 282.484 |

| Ondare garbia eta pasiboa | 2021 | 2022 |
|--|----------------|----------------|
| A) Ondare garbia | 202.507 | 219.669 |
| I. Jarritako ondarea | 0 | 0 |
| II. Sortutako ondarea | 202.507 | 219.669 |
| 1. Aurreko ekitaldietako emaitzak | 202.507 | 219.669 |
| Ondarea | 207.969 | 225.131 |
| Lagapenean emandako ondarea | -5.462 | -5.462 |
| C) Pasibo korrontea | 136.964 | 62.815 |
| IV. Hartzekodunak eta ordainkizun dauden beste kontu batzuk | 136.964 | 62.815 |
| 1. Kudeaketa-eragiketengatik hartzekodunak | 2.403 | 4.053 |
| 3. Administrazio publikoak | 134.561 | 58.763 |
| Ogasun Publikoa, PFEZagatik hartzekodun | 30.959 | 36.551 |
| Ogasun Publikoa, eskubide pasiboengatik hartzekodun | 2.344 | 0 |
| Ogasun Publikoa, kreditu-itzulketarengatik | 92.590 | 8.022 |
| Gizarte Segurantza hartzekodun | 8.667 | 14.190 |
| Ondare garbia eta pasiboa, guztira | 339.471 | 282.484 |

1.5 2022KO EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

| | 2021 | 2022 |
|--|----------------|---------------|
| 2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak | 849.800 | 873.700 |
| a) Ekitaldikoak | 849.800 | 873.700 |
| a.2) Transferentziak | 849.800 | 873.700 |
| Nafarroako Gobernuaren kapital-transferentziak | 20.240 | 30.240 |
| Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak | 829.560 | 843.460 |
| A) Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak, guztira | 849.800 | 873.700 |
| 8. Langile gastuak | -558.175 | -643.025 |
| a) Soldatak, lansariak eta antzekoak | -455.708 | -513.203 |
| Arartekoaren soldatak eta lansariak | -70.041 | -73.551 |
| Behin-behineko langileen soldatak eta lansariak | -258.906 | -308.454 |
| Funtzionarioen soldatak eta lansariak | -88.946 | -92.059 |
| Kontratupeko langileen soldatak eta lansariak | -37.815 | -39.138 |
| b) Gizarte-zamak | -102.467 | -129.822 |
| Enpresaren kargura dagoen Gizarte Segurantzaren | -102.467 | -129.822 |
| 9. Egindako transferentziak eta emandako dirulaguntzak | -34.090 | -37.905 |
| 11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk | -144.983 | -155.388 |
| a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak | -144.983 | -155.388 |
| 12. Ibilgetuaren amortizazioa | -10.004 | -12.087 |
| B). Kudeaketa arrunteko gastuak, guztira (8+9+11+12) | -747.252 | -848.405 |
| I. Kudeaketa arruntaren emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A+B) | 102.548 | 25.295 |
| 13. Ibilgetu ez-finantzarioaren eta salgai dauden aktiboen balio-galera eta haien besterentzearen emaitzak | -758 | -158 |
| b) Bajak eta besterentzeak | -758 | -158 |
| 14. Arruntak ez diren beste partida batzuk | 0 | 47 |
| II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza (I+13+14) | 101.790 | 25.184 |
| 15. Diru-sarrera finantzarioak | 0 | 0 |
| 16. Gastu finantzarioak | 0 | 0 |
| III. Finantza-eragiketaren emaitza (15+16) | 0 | 0 |
| IV. Ekitaldiko emaitza garbia (aurrezkia edo desaurrezkia) (II+III) | 101.790 | 25.184 |

1.6 ONDARE GARBIAK IZANDAKO ALDAKETEN EGOERA-ORRIA, 2022

| | Jarritako ondarea | Ondare sortua | Guztira |
|--|-------------------|----------------|----------------|
| Ondare garbia 2021eko ekitaldiaren bukaeran | 0 | 202.507 | 202.507 |
| Kontabilitate-irizpideetan izandako aldaketengatik eta zuzenketengatik egindako doikuntzak | 0 | | |
| 2022ko ekitaldiaren hasierako ondare garbi doitua | 0 | 202.507 | 202.507 |
| 2022ko ekitaldian ondare garbian izandako aldaketak | 0 | 17.162 | 17.162 |
| Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak | 0 | 25.184 | 25.184 |
| Jabea den entitatearekin egindako eragiketak | 0 | | |
| Ondare garbian izandako beste aldaketa batzuk | 0 | -8.022 | -8.022 |
| Ondare garbia 2022ko ekitaldiaren bukaeran | 0 | 219.669 | 219.669 |

1.7 2022KO DIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA

| | 2021 | 2022 |
|---|----------------|----------------|
| I. Kudeaketa-jardueretako diru-fluxuak | | |
| A) Kobrantzak: | 849.800 | 873.747 |
| 2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak | 849.800 | 873.700 |
| 5. Kobratutako interesak eta dibidenduak | 0 | 0 |
| 6. Beste kobrantza batzuk | 0 | 47 |
| B) Ordainketak: | 801.315 | 920.047 |
| 7. Langileria gastuak | 558.175 | 643.025 |
| 8. Egindako transferentziak eta emandako dirulaguntzak | 34.090 | 37.905 |
| 10. Bestelako kudeaketa-gastuak | 146.030 | 155.297 |
| 13. Beste ordainketa batzuk | 63.020 | 83.820 |
| <i>Kudeaketa-jarduerengatiko diru-fluxu garbiak (+A-B)</i> | 48.485 | -46.300 |
| II. Inbertsio-jardueretako diru-fluxuak | | |
| C) Kobrantzak: | 0 | 0 |
| 3. Inbertsio-jardueretako beste kobrantza batzuk | 0 | 0 |
| D) Ordainketak: | 19.962 | 27.848 |
| 4. Inbertsio errealeen erosketa | 19.962 | 27.848 |
| <i>Inbertsio-jarduerengatiko diru-fluxu garbiak (+C-D)</i> | -19.962 | -27.848 |
| VI. Diruaren eta haren baliokide diren aktibo likidoen emendio/gutxitze garbia (I+II+III+IV+V) | 28.523 | -74.148 |
| Dirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren hasieran | 108.441 | 136.964 |
| Dirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren bukaeran | 136.964 | 62.815 |

2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO ARARTEKOA

Nafarroako Arartekoa Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da, xedetzat duena Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoak babesturiko eskubide eta askatasunen babes-maila defendatu eta hobetzea. Haren eginkizun nagusia da herritarrak babestea administrazioaren balizko abusu eta akatsen aurrean.

Urriaren 27ko 7/2010 Lege Organikoak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoa Erreformatzekoak, 18. ter artikuluan estatutu-mailako erakundearen kategoriara jasotzen du Nafarroako Arartekoa.

Arartekoa Nafarroako Parlamentuak hautatua eta izendatua da, eta egiten duen kudeaketan lanarengatik urtero Nafarroako Parlamentuaren aurrean erantzuten du. Eginkizun dituenak gauzatzeko behar dituen aholkulariak eta konfiantzazko langileak askatasunez hautatzen eta kargutik kentzen ditu. Egun kargu hori betetzen duen pertsonak 2022ko martxoaren 23an hartu zuen postuaren jabetza, sei urterako.

2021ean, Nafarroako Arartekoaren eskumenak, eginkizunak eta ahalak areagotu egin dira honako alderdi hauetan:

- 2021eko otsailan, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren 20. artikulua aldatu egin zen eta erakundearen eskumenak handitu, birtartekotza eginkizunak esleitu. Eginkizun hori gainerakoetatik bereizita dago, eta Arartekoak hautatutako aholkulari batek zuzendutako eginkizun-arlo espezifiko bat sortzea ahalbidetzen du.

- 2021eko irailean 29. bis artikulua gehitu zitzaion uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeari, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzkoari. Artikulu horrek hertsapen-isunak ezartzeko ahalmena aitortzen dio erakundeari, administrazio publiko edo entitate batek ez duenerako igortzen informazio eskatua edo epe barruan erantzuten ez duenerako.

Nafarroako Arartekoa, kontabilitaterako, kontu-hartzaitzarako, gastu-baimenerako, kontrataziorako eta ondasun eta eskubideen eskuratzerako, Nafarroako Parlamentuaren araubide beraren mendean dago. Haren aurrekontu-proiektua Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartuta dago, eta haren kontuak Nafarroako kontu orokorren parte dira.

3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Nafarroako Arartekoari 2022an aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzkoa.

- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, enplegu publikoan aldi baterako lana murrizteko presako neurri buruzkoa.

- 4/2000 Foru Legea, uztailaren 3koa, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzkoa.

- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2005eko azaroaren 21eko Erabakiaz onetsia.

- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.

- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.

- Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, apirilaren 13ko EHA/1037/2010 Aginduaren bidez onetsia.

- 18/2021 Foru Legea, abenduaren 29koa, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

4. GEHIGARRIA. OHARRAK ETA FISKALIZAZIOAREN AURKIKUNTZA GEHIGARRIAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitezkeenak.

4.1 ALDERDI OROKORRAK

Aurrekontu-likidazioa

- Arartekoaren hasierako aurrekontuak 873.800 euroko gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspenak jasotzen zituen; zenbateko hori bat dator behin betiko aurreikuspenekin.
- Aitortutako betebeharrak 865.725 eurokoak izan dira, eta ehuneko 100eko betetze-maila izan dute. 2021ean, betebeharrak 757.210 eurokoak izan ziren.
- Aitortutako eskubideek 873.747 euro egin dute, eta betetze-maila ehuneko 100ekoa izan da. Diru-sarrera guztien jatorria Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa da. Horietatik, 843.460 euro funtzionamendu-gastuak finantzatzera bideratutako transferentzia arruntak dira, eta 30.240 euro, berriz, inbertsio-gastuetara bideratutako kapital-transferentziak.
- Arartekoak 2022an gastatutako 100 euro bakoitza honako helburu hauetarako erabili da, eta honakoen bidez finantzatu da:

| Gastuaren izaera | Zenbatekoa | Finantza-iturria | Kopurua |
|---------------------------------|------------|---------------------------------------|---------|
| Langileak | 74 | Transferentzien bidezko diru-sarrerak | 100 |
| Ondasun arruntak eta zerbitzuak | 18 | | |
| Transferentzia arruntak | 4 | | |
| Inbertsioak | 3 | | |
| | 100 | | 100 |

- Araudiari jarraituz, Arartekoak 8.022 euro itzuliko dizkio Foru Ogasunari. Zenbateko hori, ondoren erakusten den moduan, bat dator aurrekontu-superabitarekin:

| Kontzeptua | Zenbatekoa |
|---|------------|
| Diru-sarrerak, guztira | 873.747 |
| Gastuak, guztira | 865.725 |
| Aurrekontuko superabita | 8.022 |
| Foru Ogasunari itzuli beharrekoa, guztira | 8.022 |

Plantilla organikoa

Arartekoaren 2022rako plantilla organikoa 2022ko urtarrilaren 14ko 3/2022 Ebazpenaren bidez proposatu zitzaion Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, onets zezan. Ez da ageri Nafarroako Parlamentuaren 2022rako plantilla organikoa onetsi zenik; horrenbestez, ezta Arartekoarena ere, zeina horrekin batera onetsi ohi baita.

2022ko apirilaren 7an, indarreko plantillaren, 2021erako onetsitakoaren, aldaketa bat argitaratu zen NPAOn, lanpostu bat sortze aldera, hautaketa libreko behin-behineko lanpostuaren araubide juridikoa zeukana. Aldaketa onetsi eta NPAOn argitaratu zen.

Honako hauek dira lanpostuak, azken plantilla organikoaren arabera:

| Sailkapena | 2022-12-31n |
|-------------------------|-------------|
| Aldi baterako langileak | 6 |
| Funtzionarioak | 3 |
| Guztira | 9 |

2022ko abenduaren 31n hamar pertsona dira, arartekoa barne, erakundean lan egiten dutenak. Lanpostu huts bat badago, langile kontratatu batek 2008az geroztik betetzen duena.

Postu horri dagokionez, Kontuen Ganberak aurreko txostenetan gomendatu izan du behin betiko bete dadila.

Betetze-deialdia 2022ko abenduan egin da, enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko egonkortze-prozesuen esparruan, merezimendu-lehiaketako salbuespenezko sistemaren bitartezko batean. 2023ko apirilaren 28an argitaratu zen izendapen-proposamena.

Jarduera

Arartekoaren urtealdi-txostenaren arabera, honako hauek dira 2022an zehar erakundeak egindako jardueraren datu nagusiak:

- 3.575 jarduketa egin dira, 2021eko kopuruaren antzera.
- 2022an 1.426 kexa aurkeztu dira, eta guztira 1.648 kexa kudeatu dira. Halaber, 1.829 kontsultari erantzun zaie.
- Kexen ondorioz, 337 ebazpen jaulki dira, eta haietan biltzen dira 247 gomendio, 123 iradokizun eta legezko betebeharren 95 gogorazpen.

4.2 ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Honako gastu-lagina aztertu dugu, bai eta, hala izan denean, erabilitako kontratazio-prozedura ere:

| Aurrekontu-partida | Aurrekontu-gastua, 2022 |
|--|-------------------------|
| Egindako beste lan batzuk | 26.149 |
| Informazio-prozesuetarako ekipamenduak | 18.423 |
| Bilerak eta hitzaldiak antolatzea | 2.184 |

Gure azterketatik ondoriozta dezakegu ezen, gastuak oro har justifikatuta, onetsita, kontu-hartzailetzak onartuta eta behar bezala kontabilizatuta daudela eta 30 egunetik beherako epean ordainduta, eta kontratazioak aplikatzekoa zaien araudiari jarraituz egin direla.

